

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

JAZZALDIAREN 56. EDIZIOAK CHUCHO VALDÉS ETA LA LOCOMOTORA NEGRA SARITUKO DITU

**UZTAILAREN 21ETIK 25ERA EGINGO DEN
DONOSTIAKO JAZZALDIAK 60 KONTZERTU
ESKAINIKO DITU HIRIKO 8 AGERTOKITAN**

Aurtengo Jazzaldiak goi-mailako artista ugari izango ditu eta hiriak berriro Jaialdi bikain batez gozatzeko azken prestakuntzak egiten ari da.

8 agertoki egongo dira: Trinitate Plaza Keler, Kutxabank Kursaal Auditorioa, FCC Victoria Eugenia Antzokia, Škoda San Telmo Museoa, Frigo Gunea, Guuk Gunea, Chillida Leku eta Kutxa Kultur Tabakalera. Bertan 60 kontzertu emango dira; horietatik 29 doakoak izango dira, 4 familientzat Txikijazzen barruan, eta 8 JazzEñe-renak —aurten Jazzaldiaren barruan egingo den Jazz espainiarraren lagina— izango dira.

Gainera, Jazzaldiarekin batera, aurten Euskadiko Filmmategiak antolatzen duen Jazzinema zikloaren bosgarren edizioa egingo da. Zikloak 7 film eskainiko ditu, non zinemaren eta Jazzaren arteko harreman bikainez gozatu ahal izango den.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus



56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Sariak:

Donostiako Jazzaldia sariak Jazzari eskainitako bi ibilbide luzeri esker ona adierazteko emango dira, bata bakarkakoa, Chucho Váldés musikariari; eta bestea taldekoa, La Locomotora Negra taldeari.

Dionisio Jesus Valdes Rodriguezek, Chucho Valdes bezala ezagunagoa denak, Donostiako Jazzaldia Saria jasoko du, bere aitak, Bebok, jaso eta ia hogeitaz urtera; edizio hartan, aitak eta semeak kontzertu gogoangarri bat eman zuten, 38. Jazzaldian.

La Locomotora Negra Kataluniako eta Espainiako Jazz talde beteranoenetako bat da. Aurten, bere 50. urteurrenarekin batera, big band honek agertokietara azken aldiz igotzea erabaki du, eta Jazzaldiak taldeak egindako ibilbidea aitortu eta eskertuko dio Donostiako Jazzaldia Saria emanaz.

Streaming:

Kontzertuetara hurbildu ezin duten Jazz-zale guztiei eskuragarritasuna eta gozamina errazteko, Donostiako Jazzaldiak 18 artistaren kontzertuak streaming bidez emango ditu doan. Trinitate Plaza Keler-en emango diren 9 kontzertu eta FCC Victoria Eugenia Antzokian —aurten bertan egingo da JazzEñe-ren VII. edizioa— emango diren kontzertu guztiak jarraitu ahal izango dira. Streaming-erako sarbidea gure webgunearen, gure app-aren eta Youtubeko gure kanalaren bidez egongo da eskuragarri.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus



56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Babesleak:

Donostiako Jazzaldiak Frigo, Coca-Cola, Kutxabank, Škoda, Kutxa Fundazioa, El Diario Vasco, SGAE Fundazioa, Katapultatour eta abarren babesa izaten jarraitzen du.

Eta aurten hiru babesle berri gehitu dira:

-Lehenik eta behin, gure babesle nagusia, **Keler**, Trinitate Plaza enblematikoari izena emango diona. Aurten Trinitate Plaza **Keler** deituko da.

-Bestetik, **Guuk**, Kursaalera terrazetako gure agertoki bati izena emateaz gain, gaurtik aurrera deskargatzeko prest egongo den eta Jazzaldiaz gehiago eta hobeto gozatzeko lagunduko digun APP bat garatzeaz arduratu dena.

-Azkenik, **FCC**, jasagarritasunean gure kolaboratzailea izango dena eta bere izena Victoria Eugenia Antzokiari emango diona —Jazzaldian zehar **FCC** Victoria Eugenia Antzokia deituko da—.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus



56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

56. JAZZALDIAK APP BERRI BAT IZANGO DU, GUUK-EK GARATUA

Guuk enpresak App bat garatu du Donostiako Jazzaldirako. Aplikazio horren bidez, asmoa dugu Jazzaren zaleek Jazzaldia inoiz baino gehiago eta errazago disfrutatu ahal izatea.

Aplikazioa "Jazzaldia" deitzen da, 1979an erabiltzen hasi ginen izena, XIV. edizioan, eta egun gure festibalaren izen berezi bihurtu da.

Jazzaldia APPa App Stores nagusietan dago eskueran, eta hauexetarako balioko du: berrikuntza zein albiste guztien berri ezagutu; kontzertuak streaming bidez ikusi; artistei buruzko informazioa eskuratu; artistak, albisteak eta ekitaldiak gogokoetan gorde, era horretan jakinarazpen pertsonalizatuak jasotzeko; programa interaktibo baten bidez, programazioa ikusi; jakinarazpenak jaso; ekitaldien informazio osoa biltzen duen mapa batez orientatu; gure enpresa eta erakunde babesleei buruzko informazioa eskuratu; etab.

Datorren urteari begira, APPak eskaintzen dituen prestazioak handitu eta hobetu nahi ditugu, APPera DK Txartelaz erabiltzaile gisa sartu ahal izateko aukera eskainiz eta, aldi berean, gure erosketa-plataformara sartzeko aukera emanez.

Jazzaldia APPa hemen daukazu eskuragarri:

[IOS](#)

[ANDROID](#)

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus



56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Azken orduko albistea:

José James eta Chucho Valdés Jazzaldi honetako programazioan izango dira.

Arlo Parks eta Mulatu Astatke, biak ere Britainia Handikoak, haien herrialdeko Covid-19ari buruzko araudiari begira egon dira eta, azkenean, Jazzaldiko beren kontzertuak ezeztatu behar izan dituzte, bestela berrogeialdia pasa beharko baitzuten itzuleran.

José Jamesek ordezkatu du Arlo Parks Kutxabank Kursaal Auditorioan, egun eta ordu berean, eta prezio berean:

-Arlo Parkserako sarrera erosi eta José Jamesen kontzertura joateko interesa duten pertsonak ez dute ezer egin behar, haien sarrerak balio osoa izango baitu.

-Aldiz, sarrerak erosi bai baina itzuli nahi dituzten pertsonak erosteko erabili duten bide beretik itzuliko zaie diru zenbatekoa, kontzertuaren bezpera arte:

-Leihatilan erosiak: VEA / AZ leihatiletan itzultzen da.

-Internetez erosiak: bidali mezu bat dksarrerak@donostia.eus.

-Kutxabank Kursaal Auditorioaren bonua duten pertsonentzat, argitaratutako salmenta-baldintzen arabera, ez da bidezkoa izango sarrera itzultzea, ezta bonua ezeztatzea ere. Erositako bonuak baliozkoak izango dira Kursaalera kontzertu guztietarako.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Mulatu Astatke ordezkatu duen artista Chucho Valdés izango da. Trinitate Plaza Keler-en, egun eta ordu berean eta diru zenbateko berdinez.

Saio bikoitz horretan Gonzalo Rubalcaba & Aymée Nuviola arituko dira eta, gero, Mulatu Astatke kontzertua zen egitekoa (orain, Chucho Valdésekin ordezkatu); bada, **sarrerak agortuta daude jada** eta, beraz, gaur gaurkoz, ez dago sarrerarik eskueran. Mulatu Astatkerako sarrerak erosi dituzten pertsonak horiek itzultzen hasiko balira, toki gehiago egongo dira eskueran, eta salmentan jarriko dira.

-Mulatu Astatkerako sarrera erosi eta Chucho Valdéseko kontzertura ere joateko interesa duten pertsonak ez dute ezer egin behar, haien sarrerak balio osoa izango baitu.

-Aldiz, sarrerak erosi bai baina itzuli nahi dituzten pertsonak erosteko erabili duten bide beretik itzuliko zaie diru zenbatekoa kontzertuaren bezpera arte:

-Leihatilan erosiak: VEA / AZ leihatiletan itzultzen da.

-Internetez erosiak: bidali mezu bat dksarrerak@donostia.eus.

-Trinitate Plaza Keler-eko Kutxabank Kursaal Auditorioaren bonua duten pertsonentzat, argitaratutako salmenta-baldintzen arabera, ez da bidezkoa izango sarrera itzultzea, ezta bonua ezeztatzea ere. Erositako bonuak baliozkoak izango dira Trinitate Plaza Keler-eko kontzertu guztietarako.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus



56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Sarrera agortuak:

Trinitate Plaza Keler:

Uztailaren 22an, 21:00etan:

-Gonzalo Rubalcaba & Aymée Nuviola

-Chucho Valdés

(Sarrerak eskueran izango dira baldin eta Mulatu Astatkeren ezeztatutako kontzerturako erositakoak itzultzen badira)

Uztailaren 24an, 17:30ean:

-Näisam Jalal & Rythms of Resistance

-Noa & Gil Dor + Iñaki Salvador "Afterallogy"

Uztailaren 25ean, 20:00etan:

-Brad Mehldau Trio

-Bill Frisell Trio

Kutxabank Kursaal Auditorioa:

Uztailaren 25ean, 20:00etan:

-Sílvia Pérez Cruz: Farsa Circus Band

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Škoda San Telmo Museoa:

Uztailaren 22an, 11:00etan:

-Marcin Masecki: *The music of Thelonious Monk*

Uztailaren 24an, 11:00etan:

-Marco Mezquida Piano Solo

Uztailaren 25ean, 11:00etan:

-Iñaki Salvador Piano Solo

Agortu egin dira, halaber, Trinitate Plaza Keler, Kutxabank Kursaal Auditorioa eta Škoda San Telmo Museorako abonamenduak.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus